



HERRI MUSIKAREN TXOKOA

# BERRIAK

HERRI MUSIKAREN TXOKOAREN BULETINA

2010eko apirila  
33. zenbakia

## HERNANI MUSIKA ESKOLAREN 25. URTEURRENA (1985-2010)

*Herri-musikaren harrobia denak zilarrezko ezteiak ditu aurten*

Oso iragan aberatsa izan du Hernanik musika arloan, eta konkretuki herri-musikaren aldetik ere honen presentzia garrantzitsua izan da. Horrekin batera herri soinu-tresnek presentzia nabaria zuten eta dute herriko edozein ospakizun motetan.

Ezagutzen den dokumentazioan, XVI. mendeaz geroztik agertzen dira herri-musikaren jole eta soinu-tresnen berriak: *tanborín y rabete*, *“trompa-danza”* (...) *guimbardes*, txistulari-dantbolinteroak, dultzaineroak, soinu-joleak, errondailak, toberak, txalapartariak, kaskainetak,... Gora-beherekin bada ere, Hernanin nabarmena izan da herri-musika gure garaira arte.

Bestalde, oso jakina da, gure inguruan herri-musikak musika ikastetxe ofizialetan betidanik izan dituen bazterketa, balorapen eza eta ukazioa. Horrela izan da ezagutu ditugun musika eskola edo kontserbatorioetako ikasteko programazioetan: musikaren historia ikasgai ez da estudiatzen, ia ez da agertu ere egiten, edo musika forma ikasketetan ez dira kontenplatu herri musiketan agertzen diren erritmo, eskalak, moduak, neurriak, harmoniak,... eta zer esan herri-musikaren esparruko soinu-tresnei buruz? Soinu-tresna ofizial edo homologatuekin alderatuz gero, kontserbatorioetako munduan hauek eskasak kontsideratzen dira, mugatuak, desafinatuak, ez dute balio musika ona jotzeko.

Baina, jarrera eta joera horien aurrean orain dela 25 urte musika ikastetxe berri baten antolaketan gure herri-musikarako oso garrantzitsua izan den jarrera berri bat

agertu zen.

1985ean, Hernaniko Udalak zabaldu nahi zuen kontserbatorio berrian, Hernaniko historian herri-musikarekiko agertzen den jarrera eta joera horrekin jarraitzeko asmoz, Musika Kontserbatorioa martxan jartzean, besteekin batera euskal soinu-tresnak ikasteko aukera eskaini nahi izan zuen. Garai horretan, halako musika ikastetxeetan onartua zegoen euskal soinu-tresna bakarra txistu-tza zen eta Hernaniko zentro

soinu-tresna hauen irakaskuntza maila batean (irakasleagoaren habilitazioekin) legeztatua izan da, baina bitartean Hernaniko Musika Kontserbatorioan inongo subentzio, laguntza eta errekonozimendu ofizialik gabe, emaitza ugari eman zuen bidea egin zen.

Arlo askotan oso garrantzitsua izan zen Hernaniko musika ikastetxeak hartu zuen erabakia. Ordura arte, salbuespen gutxi batzuekin, soinu-tresna hauek ikasteko posibilitate bakarrak,



**HERNANI Musika Eskolako alboka taldea kalejiran.** HMT

berriak solfeoa, pianoa, saxofoia eta txistuarekin batera Alboka, Dultzaina, Trikitixa eta Txalaparta ikasteko aukera eskaini nahi izan zuen.

Honengatik, zalantzarik gabe esan dezakegu Hernani izan dela Alboka, Trikitixa eta Txalaparta ikasteko aukera eman duen Euskal Herriko lehen musika ikastetxea.

Urte batzuk beranduago “LOGSE” legearen ezarpenarekin

noizbehinka eta iraupen ezberdinekin (gehienetan oso motzak), jole-irakasle eta ikasleen artean, laguntza txikiekin edo gabe antolatutako ikastaroak ziren. Ondo dakigu zein baldintza eskasetan funtzionatzen genuen: iraunkortasuna, lokalen egoerak, ordutegiak, materiala, diru laguntzak, metodologia,... Hernaniko Musika Kontserbatorioak neurri handi batean hori guztia normalizatu egin zuen:

**(Azken orrian jarraitzen du)**

# KONTZERTUAK HM Txokoan

# Udaberriko kontzertua

2010eko maiatzaren 8an - 18,30tan - HM Txokoan

## XALBADOR eta IHIDOI

### Nafarroa Behereko ahots bikotea

Daniel Aire *Xalbador* urepeldarra eta Gerard Ihidoi ezterenzubitarrak osatzen dute bikotea. Bakoitza bere aldetik hasi zen musikan, bakoitza bere abestiekin eta bakoitza bere plazetan. Elkarrekin bikote moduan lehenengo aldiz 1990ean kantatu zuten Baxenabarreko Kantu Txapelketako kanporaketan. Orduko hartan Daniel Xalbadorrek sortutako *Gaztetxo bati* izeneko kantuarekin aurkeztu ziren. A cappella kantatutako abesti harekin finalean sartzea lortu ez bazuten ere hitz onena zuen abestiaren saria eskuratu zuten. Geroztik ostatu eta plazetan elkarrekin kantatzen hasi ziren.

1992an lehen diskoa Elkar argitaletxearekin argitaratu zuten, *Gauden gu* izenekoa. Handik bost urtera etorri zen bigarren diskoa, Agorila diskoetxearekin argitaratutako *Bizitzaren haritik*. Eta gaurdaino, azken diskoa 2005ean argitaratu zuten, *Amentsen miraila* (ZTK). Aurten beste disko bat ateratzeko asmotan dabilta.

Abeslari bikote honek herri musika landu

du beti. Ahotsarekin bakarrik, edo gitarra jole batek lagunduta, munduko kantu ezagunak zein euskal herriko kantu ez hain ezagunak abestu dituzte antzokietan, herriko festetan, elizetan, etab. Hala ere, Xalbador eta Ihidoiren errepertorioan ez dira falta Daniel Xalbador berak sortutako abestiak. Batzuetan Ernest Alkhat, Etxahun-Iruri edo Xabier Leteren hitzak erabiltzen ditu, baina gehienetan bere uzta propioak.

Plazerari eta penari, plazeretik eta penatik abesten dute Xalbador eta Ihidoik. Amodiozko kantuak eta politikoak.

Ipar Euskal Herriko kantagintzan, Etxamendi eta Larralde bikotearekin lotu izan da Xalbadorrek eta Ihidoik osaturikoa, bai estilo aldetik, bai jorratzen dituzten gaiiei begira, hala doinuetan nola kantakeran.

**Ahotsak:** Daniel Aire *Xalbador*  
Gerard Ihidoi

**Gitarra:** Laurent Ascarain



# JOHN STEWART

## Eskoziako kornamusa

John gaita jotzen 13 urterekin hasi zen munduko gaitajole banda zibil zaharrenean, *Wallacestone and District Pipe Band* izenekoan. Gazteen mailan bi urtetan jotzen aritu ondoren helduen mailara pasa zen eta harekin hainbat txapelketa irabazi zituen tartean Britaniar Txapelketa, Europar Txapelketa eta Eskoziako Txapelketa 1990ean. Txapelketa hauek berriro eskuratu zituzten hurrengo urtean. Gainera, 1991n taldea mailaz igo zen.

1997an John-ek *Wallacestone and District Pipe Band* utzi zuen *Boghall and Bathgate Pipe Band* taldean sartzeko. Horretan aritu zen 1999an urte hartako USA Open Golf-eko gaitajole ofiziala izatera gonbidatu zuten arte. Orduan Estatu Batuetara joan zen.

Herralde hartan Ipar Carolinako gaitajole banda bati, *Highlands Pipe Band*, gaita klaseak ematen aritu zen. Berak emandako laguntza horri esker taldeak mailaz igotzea eta hainbat sari irabaztea lortu zuen.

Ameriketako egonaldiairen ondoren, 2003an, Euskal Herrira etorri zen eta gaur egun Gasteizen bizi da. Bere gaitarekin ekitaldi pribatuetan (ezkontzak, urtebetetzeak,...) eta era ezberdineko kultur ekitaldietan (Burns Supers, whisky dastaketak, Lagun-Cara euskaldun eta irlandarrek osatutako elkartearen ospakizunak,...) parte hartzen du.

Gaita joaz daramatzan urte guzti hauetan John-ek internazional mailako jaialdi ugaritan parte hartu du eta horien artean nabarmendu beharrekoak dira bere garrantziarengatik:

Frantziako iparraldean ospatzen den Lorient-eko Jaialdi Interzeltikoan 1987 eta 1997 artean izan zen, Kanadako probintzia den Eskozia Berrian dagoen Halifax-en ospatzen den eskoziar Jaialdian 2000n izan zen eta lehengo urtean 2009an Avilés-ko Jaialdi Interzeltikoan Eskozia ordezkatzu parte hartu zuen kontzertuak eta gaita jotzeko klase magistralak emanez.

Oraingo honetan Amurrioko Aritz Vidal perkusionistak lagunduta joko du.



### EGITARAUA

1. Marches 6/8
2. Slow air and reels
3. Marches 2/4
4. Slow air
5. Retreats 3/4
6. Jig irlandarrak
7. Eskoziako zenbait abesti herrikoi
8. Hornpipes
9. Flower of Scotland (Eskoziar ereserkia)
10. Marches 4/4
11. Amazing Grace
12. Scotland the Brave

Udaberriko kontzertua HM Txokoan

### AFARIA KONTZERTU ONDOREN

Orain arte bezala, afaria antolatu dugu Auzokalte elkartearen musikariekin egon, jan, kantatu, jo eta dantzatzeko. Izena emateko komeni da lehen bait lehen deitzea, lekua mugatua baita. Prezioa: 15 euro.



kontzertu honen laguntzaileak:



### (Lehenengo orriaren jarraipena)

- Ikastaroen iraupena ikasturte osora pasa zen
- Iraunkortasuna:
  - Urtero eta hutsik gabeko eskaintza.
- Lokalak:
  - Gutxienezko baldintzak betetzen zituzten.
- Ordutegia:
  - Finkoa.
- Ikasteko behar zen materiala.
- Irakaslegoaren ordainketa.
- Metodologia

Aurreko baldintzak betetzeak metodologi egoki bat osatzeko aukera eman zuen. Guzti honek sortu zuen ikasbidearen ordenazioa, progresioa eta lanerako bide sistematizatuak.

25 urteko jarduera honek emaitza zabala eragin du gure inguruan herri-musikak duen mailan eta presentzian. Hernaniko Eskolan inguruko ospakizune-

tan eta musika nahiz dantza taldeetan parte hartzen duten hamaika jole, eta beste eskoletarako irakasle sortu dira, kanpoko eta bertako herri-musikaren kontzertuak antolatu ditu, iganderoko kale-bueltak, urteroko Txalaparta Festa, Albokariaren Topaketa eta Txistularien Jaialdia, dultzaineroen topaketa, trikitilari gazteen lehiaketa, etabar. Zalantzarik gabe, Hernani Musika Eskola gaur egungo herri musikaren erreferentzia dela esan dezakegu.

Ezin da bukatu, gure herri musika sustatzeko eta zabaltzeko Hernani Musika Eskolako euskal soinu-tresnen mintegia eta HM Txokoaren artean 2007an *Herri Musika Zaleak* elkarteak sortu genuela aipatu gabe.

Bizi luze eta, orain arte izan den bezala, emankorra opa nahi diogu Hernaniko Musika Eskolari.

Zorionak zuen zilarrezko ospakizunean!



Elizalde eskolako dantzariak. HMT

## LARTAUN-ELIZALDE KONTZERTUAN

Pasatako martxoaren 28an Oiartzungo Kontsejupean Lartaun Txistu Taldeak emanaldia eskaini zuen Elizalde Dantza Eskolakoekin.

Dantza eskola hau nahiko berria dugu eta herrian lehenik zegoen aukera zabaltzen du. Orain herri dantzak jende gehiagori iritsiko zaizkiola pentsa daiteke.

Emanaldiari hasiera Lartaun Txistulari Taldeak eman zion egile ezberdinen lau obra joaz. Jarraian txistulariek jotako doinuak dantzatzera Elizalde Dantza Eskolako dantzari gazteak sartu ziren. Lartaungoak musika joaz eta Elizaldekoak hura dantzatzuz Euskal Herriko eskualde guztietan zehar bidaiatu zuten haietako bakoitzeko doinuen selekzio bat erakutsiz.

## MUSIKA KLASEAK TIRIKITRAUKI MUSIKA DENDAN

Hasieratik gure Herri Musika Kontzertu zikloaren babeslea den Lasarteko Tirikitrauki musika dendak, musikari profesionalentzat eta bereziki trikitixa jole eta irakasleentzat klaseak antolatu ditu. Klase hauek Lasarteko dendan Joseba Tapia trikitilari ospetsuak ematen ditu. Arrakasta handia izan du proposamen berri honek eta bi ikasturtetako plazak bete dituela izan daiteke horren lekukoa. Zoriondu nahi dugu Tirikitrauki eman duen urratsagatik eta halako egitasmoak gure musika eta kulturaren alde direlakoan, animatu nahiko genuke jende gehiago halako gauzak antolatuzera.

## HERRI MUSIKA ESKOLAK

Oiartzun eta Hernaniko herri musika eskoletako ikasle eta irakasleak Errioxan izan ziren lehengo otsailaren 27an.

Goizean goiz autobusa Oiartzundik abiatu zen eta hernaniarrak jaso ondoren Brionesera joan ziren. Bertara iritsitakoan, lehenengo hainbat gairi buruzko jakin-mina asetzen saiatu ziren museo eta elizak bisitatuz. Ondoren, soinu-tresnak hartu eta kalejiran ibili ziren Errioxako musikariekin. Musika joaz jatexera joan ziren hiru eskolen arteko anaiartea sendotzera. Bazkarian izandako giro ona ondoren kaleetara atera zuten herritarrak ere haren partaide bihurtuz.

### **BISITARI KOPURUA**

Azken hiru hilabetetan: bisitari kopurua: 1.666

Antolatutako taldeak: 66

Bisitari kopurua apirilera arte: 25.493

### **WEB ORRIRA BISITAK**

Azken hiru hilabetetan: 10.435

## **HERRI MUSIKAREN TXOKOA**

Tornola kalea, 6 - 20 180 OIARTZUN

Tel / Fax 0034 943 493 578

herrimusika@herrimusika.org

[www.herrimusika.org](http://www.herrimusika.org)

